



Izenburua	Eta hizkuntza kare-morteroa izango balitz? Euskara eta identitatearen inguruko hainbat hausnarketa
Egilea	Jone Miren Hernández
Data	2011/04/07

aurkibidea

1. 70-80. hamarkadak: euskararen mina sendatu nahian.....	3
2. 90. hamarkada: euskararen ibilbideak esploratu nahian.....	7
3. 2000. hamarkada: euskara, oraindik, bere etorkizunaren bila.....	11

1. 70-80. hamarkadak: euskararen mina sendatu nahian...

Jaio nintzen urte horretan Jose María Sánchez Carriónnek, *Txepetxek*, euskararen inguruan burutuko zuen lehenengo ikerlana egiten ari zen. Bi urte beranduago argitaratuko zen *El estado actual del vascuence en Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo*¹. Azaldu berria den *Soziolinguistika Eskuliburua* testuan Sánchez Carriónnek egindako ikerlan hau euskal soziolinguistikaren sorreratzat jo dezakegula aipatzen dut, Iñaki Larrañagaren ustea nirea eginaz (Zarraga et. al., 2010: 324). Sánchez Carriónnek soziolinguistika ekarri zuen gurera eta geroztik hainbat urrats eman ditu diziplina honek Euskal Herrian. Halere, Sánchez Carriónnek lan hau argitaratu ondoren sei bat urtek pasa beharko zuten erreferentziazko beste izenburuak agertzeko, *Euskararen liburua zuria* (1978) lehenik eta, urte bat beranduago, *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* (1979). Azterlan hauen atzean SIADECO ikerketa taldea eta Euskaltzaindia topatzen ditugu. Bata zein bestea ibilbide berri baten bila zebiltzan. Trantsizio garaia zen eta behingoz aukerak sortzen ari ziren euskararen egoera aztertzeko eta horren gaineko hausnarketa zabaltzeko.

Hortik aurrera euskal soziolinguistikaren eremua zabaltzen, osatzen eta aberasten joango zen. 1980ko hamarkadaren hasieran elebitasunaren inguruko ikerketak (teorikoak zein aplikatuak) argitara eman ziren. Horiekin batera eskola eta hezkuntzaren inguruko lanek protagonismoa hartu zuten. Euskararen erabilera (eta ez bakarrik ezagutza) kezka berriz hasi zen eta ardura horren ildotik, José Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* bere eredu matematikoa garatzen eta zabaltzen hasi zen. Testuinguru honetan, 1983an *Euskararen Borroka* izenarekin kaleratu zen bigarren azterketa soziolinguistikoko orokorra. Larrañagak aipatu bezala, ikerketa soziolinguistikoko honen inguruan hizkuntzarekiko jarrera eta motibazioei buruzko zenbait ikerketa sortu ziren, euskara ikasten ari ziren pertsona helduen artean bereziki. Lan horien emaitzak hizkuntza minorizatuei buruzko Getxoko kongresuan azaldu ziren, *Hizkuntza minorizatuena soziologia* izenburua zuen liburuan (1986). Urte haietan jada, soziolinguistika aplikatua bere bidea egiten ari zen, batez ere udal mailan burutzen ari ziren ikerketa ezberdinei esker.

Panorama honen aurrean esango nuke 70-80. hamarkada bereziki hizkuntzaren aldarrikapenarena izan zela. Ikuspuntu horretatik pentsa dezakegu aipatutako testu horiek hizkuntzaren gora-beheren inguruan hitz egiteaz gain, gizarteari buruz ere ari zirela. Garaiko testuak dira, errealitate, espazio eta une zehatz baten isla. Horregatik, hizkuntzaren borroka edota galera ohiko termino bihurtu ziren, gizarteak termino horietan deskribatzen eta sentitzen baitzuen euskararen egoera.

40 urteko diktadura baten ondorioz euskara egoera (bereziki) larria bizitzen ari zen. Egoera politikoak (frankismoak) eta bestelako faktoreek bere kontra egin zuten, esate baterako industrializazio eredu berak eta bere ondorioz gertatutako populazio mugimenduek. Egoera honek eszenatoki konplexu baten aurrean jartzen gaitu eta erronka handia suposatzen du ikerlariarentzat. Nik Lasarte-Oriaren egoera aztertu nuen nire doktorego tesian (Hernández, 2007) eta kasu honetan jarri nahi dut arreta, nahiz eta jakin bertan agertuko diren elementuak asko errepikatzen direla, beste leku batzuetan ere topa ditzakegulako, eta, bestetik, hainbat elementu bereziak eta berezkoak izango direla.

Beraz, aurkez dezagun Lasarte-Oria herria.

Antza denez, iraganean egun Lasarte-Oria bezala ezagutzen dugun eremua oso euskalduna zen (guztiz euskalduna?), hau da bere populazioaren ehuneko oso altuak euskara zekien. Baina garai hartako Lasarte-Oriak, irudikatu dezakegunak, ez du zerikusirik gaurko errealitatearekin. Urteak pasa dira eta argazkiek (garai hartakoek eta egungoek) ez dute antzik. Urteen poderioz indar ekonomiko, sozial, kultural, edota politikoek guztiz eraldatu dute paisai fisikoa, soziodemografikoa eta demolinguistikoa. Industriak Lasarte-Oria kokagune aukeratu zuen. Donostia gertu zuen, herria ondo komunikatua zegoen. XIX. mendetik aurrera probintziako zein kanpoko enpresariak herriko lurra

¹.- Momentu horretan ari zen bere aldetik Pedro de Yrizar *Los Dialectos y Variedades de la Lengua Vasca. Estudio Lingüístico –Demográfico* (1973) aztertzen eta Euskal Herri osoko udalerrri guztietako datu-bilketa zehatz bat egitea lortu zuen. Sánchez Carriónen lanaren ondotik, beste bi lan etorriko ziren, euskara Nafarroan zertan zen eta bere galtze-prozesua nondik-norakoa zen aztertzen dutenak: Apat-Etxebarneren (Irigarai, Aingeru) *Una geografía Diacrónica del Euskara en Navarra* (1974) eta Jose Angel Irigarayk 1973an argitaratutako *Euskara eta Nafarroa*.

okupatu zituzten. Brunet familia (oihalak) lehenengoetakoa izango zen. Ondoren Luzuriaga (fundizioa), eta, azkenik, Michelin (gurpilak). Urteik urtera enpresa hauek zabaltzen eta handitzen joan ziren eta proiektu hauei aurre egiteko langileak beharrezkoak ziren. Eta horiek iritsi ziren.

Brunet lantegia ireki zenean (1848) Lasarte-Oriak 645 biztanle zituen. Luzuriaga eta Michelin martxan jarri zirenean (30. hamarkadan) herriak 1.500 biztanle inguru zituen. Hortik aurrera kopuruek gora egin zuten, modu azkar eta bortitz batean. Hazkunde nabarmenena 60-70. hamarkadan eman zen: 1960. urtean 3.944 pertsona bizi ziren Lasarte-Orian, 10 urte beranduago (1970) 12.500 biztanle zituen herriak.

Aipatu moduan, enpresa horiek langile berriak bereganatu nahi zituzten. Era berean, Estatuko hainbat zonaldetan lanaren eskasia nabarmena zen. Gaztelan esate baterako, beharra zen nagusi eta beharrak bultzatuta atera ziren asko eta asko euren jaioterritik. Halere, ezin dugu ahaztu prozesu hau oso konplexua izan zela: batetik, une historiko-politiko berezi batean gertatu zelako; bestetik, bultzatuko mugikortasun eremuan faktore oso ezberdinak topatu daitezkeelako. Nahiz eta askotan bat nagusitu, orokorrean ez dago migratzeko arrazoi bakarra, are gehiago, kasu gehienetan pertsona berean arrazoi ezberdinak bildu daitezke.

Edozein kasutan, mugitzen ziren guztiak Euskal Herrira bizitza proiektu baten bila etorri zirela ausartuko nintzateke esatera. Eta proiektu honen erdigunean lana eta familia topatzen ditugu. Horretaz gain, beste argudio batzuk azaleratu izan dira denborarekin: emakumeen kasuan, esate baterako, askatasunaren grina; beste askoren kasuan familiak eragindako presiotik ihes egin nahia, edo bizitza hobeagoa lortzeko esperantza. Horrelako arrazoiak ere ekarri zituzten garai hartako etorkinak Lasarte-Oria bezalako herrietara.

Eta zer topatu zuten etorri berri horiek? Lasarte-Oriak, herri bezala oso gutxi zuen eskaintzeko, ia ezer. Hasteko, momentu hartan Lasarte-Oria ez zen herria, maila administratiboan beste herrietako auzoz osatutako gunea zen, besterik ez. Gutxieneko azpiegiturarik ez zuen, etxe nahikorik ez, zerbitzurik ez.

Baina Lasarte-Oriak bazuen erakargarria zen zerbait: lana. Hori nahikoa zen eta horri eutsi zieten etorkin horiek. Hasieran, lana izango zen pertsona horien lotura lur berri honekin. Aurrerago eta bereziki emakumeen kasuan, lotura hori familiak ahalbideratuko zuen: eurek sortutako familiaren jaioterria Lasarte-Oria izango zen. Arbasoak beste toki batean edukita ere, hemen jaioko ziren euren seme-alabak. Bizi-proiektua, etorkizuna Lasarte-Orian zegoen.

Paraleloki, bertakoak beste errealitate bat bizitzen ari ziren. Batzuk egungo pateren fenomeno aipatu dute garai hartako egoera berriro gogoratzerakoan. Paterak ez, baina autobusak bai, autobus beteak. Eta horietatik jende mordoa jaisten zen. Bestalde, olatuaren irudia etortzen zaie bertako askori. Etorkinen olatu handiak izan ziren, bata bestearen atzetik. Irtsi berri horien artean askok bazuten erreferentziatzko norbait herrian bertan edo inguruan, aurretik etorritako senide edo lagun bat. Horien etxeetara jotzen zuten. Beste asko aldiz apopilo bilakatu ziren eta ugazabandreak² bilatzen saiatu ziren. Bizirauteko estrategiak ziren: emakume horientzako –asko 50. hamarkadan iritsitakoak ziren- ogibide bihurtu zen, etorkin berri hauentzako ostalua lortzeko aukera bakarra.

Handik gutxira auzo berriak eraikitzen hasi ziren: Zumaburu, Cocheras, Sasoeta... Eraikin berri hauek bukatu ahala etorkin berriak bertan kokatzen joan ziren. Horiekin batera bertakoek, nahiz inguruko herrietakoek erosi zituzten etxe hauetako batzuk euren bizi baldintzak hobetu nahian. Etxebizitzen egarria asebeteta edo, laster bestelako hutsune eta beharrak agerian geratuko ziren: uraren eskasia, osasun eta hezkuntza zerbitzuak eta abar luze bat. Arazo hauen inguruan jendea biltzen hasi zen eta hainbat elkarte edota talde sasi-antolatua sortzen hasi ziren. Beharra topagune bilakatu zen.

Deskribapen honetan soma daitekeenez denbora gutxian aukera ezberdinak sortuko ziren bai bertakoek, bai kanpokoek elkarrekin topo egiteko: lantokietan gehienbat, baina baita ere etxebizitzetan, kalean, sortu berriak ziren elkarteetan...

².- Gaztelarazko patrona.

1982 urtean Xabier Amurizak horrela deskribatu zuen Lasarte-Oria:

1)
Bertso berri batzutan
noa Lasartera
ezjakinari hango
berri ematera.
Hogeita hamar mila
arima batera
gorputzak nola dauden
kontuak atera
deskalabru hoberik
munduan ote da?

3)
Herri bihurtu nairik
ari da jo ta ke
udaletxea naita
kasurik ez bate.
Zozketa bat bezala
lau herriren arte
lau puska lotsagarria
Egina daukate
holakoxe trantzean
bizi da Lasarte.

5)
Hiri honek dirudi
giza ikuilu bat
janda lo egiteko
sortua erabat.
Auzo eta kalekka
nik al dakit zenbat
kontatzera joateko
gogoia badaukat
Michelinek moztutzen
ez badizkit hankak.

7)
Hilek egina dute
betiko ohea
bizien esperantza
goizeko lorea.
Gaur arte duzun baino
suerte hobea
opa dizut, Lasarte,
hain izen noblea
Agur eta ez galdu
zure umorea.

2)
Etxe pilak elkarren
gainean eginak
eundik laurogei edo
dira etorkinak.
Berdin txantxangorriak
eta poxpolinak
bakarrik falta ditu
horko danbolinak
Cadizko auntzak eta
Bizkaiko sorginak

4)
Kontuak eskatzeko
ez dakite nori
sinisten ez baduzu
joan zaitez zerori.
Urnietan irtenda
Donostira etorri
Usurbilen mozkortu
Hernanin erori
Lasarten bertan egin
zenezake hori.

6)
Ifernua bertara
bailitz eroria
zikinaren txapeldun
hor doa Oria.
Berrogeita hamarren bat
urte edo dia
bertan bustirik jaten
zutela ogia
zapabururik ere
gaur ez dago ia.

Eta testuinguru aldakor eta konplexu honetan non zegoen hizkuntza? Non euskara? Lasarte-Oriaren kasuan, euskara nahiko desagertuta zegoen esparru publikotik. Kanean ez zen euskara entzuten, bestelako gizarte eremuetan ere ez. Familietan zuen bizitoki nagusia, baina ez familia euskaldun guztietan. Jakina denez gerra eta gerra ondorengo garaian belaunaldi batetik bestera izandako galera nabarmena izan zen. Lasarte-Oria ez zen salbuespena izan: nahiko arrunta omen zen gurasoak euskara jakitea eta euren artean erabiltzea baina seme-alabekin ez. Eta hor mozten zen katea: seme-alabek ez zuten ikasiko.

Garai hartan euskarak hain presentzia eskasa izanik, zer nolako lotura izango zuen etorkin berri hauekin? Zer zen euskara erdaldun hauentzako? Galdera hauei erantzuteko orduan testu honen hasieran planteatu ditudan hiru puntuak berreskuratu nahi ditut: Zer kontatu zieten euskararen inguruan? Zer ikusi zuten? Zer bizipen izan zituzten?

Zer kontatu? Gehienetan gutxi. Eta kontatu zenaren artean, diskurtso bat nabarmentzen zen: euskara egoera larrian zegoen, desagertzeaz. Gerra garaiak, Frankismoaren debekuak... zaildu zuten euskararen egoera. Euskarak jasandakoaren inguruan zerbait zekitenak debekua eta debekuen ondorioak zituzten oso presente; hor kokatzen zuten hizkuntzaren gaitza. Hauen artean batzuk gai ziren euren burua euskararen arazoan zati bat bezala irudikatzeko. Etorri garenok –zieten- ez dugu lagundu euskararen egoera latzari buelta ematen. Beste asko, egoera ezagututa edo ez, ez zuten hizkuntzarekiko inongo inplikazio edo kezka berezirik adierazi. Azkenik, baziren ere euskararen kontra egiten zutenak, besteak beste, hizkuntza bezala kontsideratzen ez zutelako.

Zer ikusi zuten? Euren inguruan euskararen presentzia oso urria zen. Tantaka agertzen zen eta egunerokotasunean aukera gutxi zeuden euskararekin topo egiteko. Gehienek, aipatzekotan, bizilagun euskaldunen bat aipatzen zuten erreferentzi moduan. Askok familia euskaldunen eskuzabaltasuna goraiatzen zuten eta eurekin izandako harremanak testuinguru erreal bat jarri zioten euskarari erdaldun askoren kasuan. Euskara jada, ez zen zerbait abstraktua edo urrutikoa egunerokotasunaren zati baizik.

Zer bizipen izan zituzten? Oso ezberdinak. Goizago edo beranduago denek deskubrituko zuten euskara. Kasu honetan, era guztietako topaketak izan ziren, batzuk atseginak, beste batzuk ez hainbeste. Estereotipoak edota aurreiritziak nagusitu ziren tokietan tentsioak sortu ziren. *Txurriano* bezalako izenak erabiltzen hasi ziren irain moduan. Horren aurrean batzuk euskara eta euskal kulturarekin zerikusia zuen guztia baztertzearen alde egin zuten. Baina jende asko irekia agertu zen, egoera berrietara moldatu nahi zuten ahalik eta azkarren, eta euskararekin topo egin zutenean onartu egin zuten. Zenbaitek saiakerak egin zituzten euskarara hurbiltzeko, ikasteko edo, gutxienez bere egoeraren inguruan gehiago jakiteko.

Pertsonalki aitortu behar dut nire familiak gutxi kontatu zidala euskararen inguruan, hori bai, inoiz ez nuen entzun euskararen kontrako ezer. Presentzia gutxi zuen etxean, baina ez bizilagunen artean. Bizilagun euskaldun dezente genituen eta hizkuntzagatik ez dut gogoan inongo oroimen txarrik; aurkakoa, beraiek izan ziren nire lehen lotura euskararekin eta horregatik bakarrik estimuan ditut. Ikusi ere gutxi egin nuen. Nire auzoa, nire eskola oso gazteleradunak ziren. Trantsizio garaian lortu zuen euskarak eskola publikoetan (garai hartan eskola nazionalak zirenak) sartzea eta hor sortzen da lehenengo lotura iraunkorra hizkuntzarekin. Gauzak dezente aldatu ziren institututan, baina ordura arte euskara irla moduan (txikia eta sakabanatua) agertzen zen nire testuinguruan. Bizipenen maila da ziur aski zailena aztertzeke, bertan gizartean sumatzen ziren tentsioek isla zuzena izaten zutelako. Euskararen egoeraz ohartzearekin batera euskararen gaineko diskurtsoak bizipenen parte izaten hasten dira. Aipatu izan denez, soziolinguistikaren hasierako diagnostikoek terminologia eta irudi zehatz batzuen alde egiten zuten eta horrek, nahitaez, sentipen eta bizipen mota bat bultzatzen zuen.

Manu Escuderok 1978an argitaratutako liburuaren antzera (*Dos comunidades*), Lasarte-Orian banaketaren diskurtsoa zabaltzen hasi zen. Baina diskurtsoaz haratago ustezko bereizketa honek muga sinboliko bat ezartzen du herrian: “*moja Brigiden komentua pasata Espainia hasten da*” esaten zen herrian. Ni Brigiden komentua pasata bizi nintzen.

Beraz, neurri batean, hizkuntza, euskara, muga bihurtu zen Lasarte-Orian eta, onerako edo txarrerako, mugaren inguruko bizipenak oso ugariak izan ziren. Batzuen kasuan euren lubakietan babesteko aitzakia izan zen; beste batzuen kasuan aldiz, esploratzeko aitzakia bilakatu zen. Mugek transgresiorako gonbitea luzatzen zuten, nahiz eta diskurtsoek eta errealitateak transgresiorako biderik ez eman. Batzuk, zein besteak oso estatikoak ziren. Atzera begiratzen zuten edo gehienez ere orainaldiari, eta honek ere ez zuten itxaropenerako biderik ematen. Garaiko diskurtso soziolinguistikoek irudi eta diskurtso ezkorrei planteamendu murrizak gehitu zitzaizkien eta horrek hizkuntzaren gaineko bizipen askeak oztopatu zituen. Hizkuntz gatazkak eta gatazka politikoak bat egiten zuten askotan. Garai hartako tentsioa gehiegi zen eta bide gutxi uzten zuten sormenerako. Erdaldun edota euskaldun jaio, euren patua aurreidatzia zuten euren hizkuntz ibilbidean.

2. 90. hamarkada: euskararen ibilbideak esploratu nahian...

Euskararentzat hamarkada hau hiru urte lehenago hasi zen: 1987an Sánchez Carriónnek bere tesia argitaratu zuenean, alegia. *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas* (1987) liburuak ziklo berri bat ireki zuen euskal soziolinguistikan. Euskaratik eta euskararentzat egindako lehenengo teoria (eta ia bakarra esan dezakegu) izango zen eta egun, atzera begiratuta, esan daiteke liburuaren arrakasta teoria horren planteamendu aplikatuan datzala. Sánchez Carriónen teoriaren eraginez edo, euskararen inguruko ikerlanak eta hausnarketak ugaritu ziren hamarkada honetan. Aurreko urtetan garatutakoari eutsi eta bide berrietan esploratzen eta sakontzen hasi zen.

Halere, momentu honetan euskararen garapenean elementu bat nabarmendu behar izango bagenu hori eskolarena izango litzatekeelakoan nago. Bestalde, alfabetatze eta euskalduntze prozesua lehenagotik abian bazegoen ere, hamarkada honetan lortzen duen protagonismoa ukaezina da. 1983an hezkuntz ereduak arautu baziren ere, bere hedapena 90. hamarkadan iritsiko zen. Haurrak euskaldunduz doaz, baita helduen kopuru handi bat ere: batzuk hezkuntza sistema berak ezarritako prozeduren bitartez (irakasleak), beste batzuk euskaltegien sarean parte hartuz.

Hezkuntza, elebitasuna, alfabetatzea... horrelako kontzeptuak nagusitzen dira momentu honetan. Eta horiei lotuta diskurtso nahiz irudi berriak zabaltzen dira. Denen artean bat aukeratuko nuke protagonista bat azpimarratzekotan: ibilbidearena. Sánchez Carriónnek proposatutako kontzeptua da hau eta jakina den moduan berak hizkuntzaren ikaskuntzari lotzen zion irudi hau. Egile honen teoriaren arabera, motibazioa, ezagutza eta erabilera dira, hizkuntza bat menperatzeko zutabe nagusiak.

Motibazioan hizkuntza bat ikastera edo hizkuntza batean irautera -hots, hizkuntza jakiten eta hitz egiten jarraitzea- bultzatzen duten arrazoiak, desioak edo interesak bilduko lirateke. Ezagutzak hizkuntzaren funtzionamenduaz jabetzeko prozesuari eta ahalmenari egiten dio erreferentzia. Eta erabilerak, azkenik, hiztun komunitatearen hizkuntz funtzioetako edozeinetan jardutea eskatuko luke.

Hiru elementu hauek ezberdin gauzatzen dira ikasketa prozesuen baitan. Hortaz, Sánchez Carriónnek bi ikasketa prozesu bereizten ditu: ibilbide naturala eta kulturala deiturikoak.

Lehenengo kasuan, haurren ikasketa-prozesuaz ari gara. Prozesu hau inkontzientea da eta bere abiapuntua hizkuntzaren erabileran kokatzen da. Izan ere, teorian, hurrek entzuten eta hitz egiten dute hizkuntzaren mekanismoez jabetu gabe. Ondoren, hizkuntza erabiltzearen poderioz, hurrek hizkuntzaren ezaguera handitzen eta hobetzen dute; eta azkenik, hizkuntza gero eta hobeto dakitela konturatzean, hurrengan hizkuntzarekiko motibazioa areagotu egiten da. Hori dela eta, ibilbide hau ("A" ibilbidea deitutakoa) gizarteratze prozesuarekin lotua legoke, haurra gizarte identitate gainjarriak dituzten esparruetan pixkanaka sartzen baitu: familia, eskola, herria...

Bigarren kasuan, hau da ibilbide kulturalaren kasuan (edo "B" ibilbidea deitutakoa), nerabeen eta helduen hizkuntzen ikasketa-prozesuaz ari gara. Kasu honetan ikasketa ibilbide kontzientea da eta motibaziotik abiatzen da: heldua motibaturik dagoenean hasten da hizkuntza ikasten edo ezagutzen, eta ondoren, zenbat eta hizkuntza hobeto ezagutu, gehiago eta hobeto erabiltzen du. Egilearen

esanetan, ibilbide kulturala norbanakotze prozesua da, norberak beste hizkuntza batek -edo batek baino gehiagok- hartuta zeuzkan espazioak zabaltzen baitizkio ikasten dabilen hizkuntzari.

Une honetan ez naiz teoria honen inguruan arituko. Beste momentu batean aipatu izan dut (Hernández, 2010), jada behar beharrezkoa ikusten dudala Sánchez Carriónnek egindako planteamenduaren errebisio sakona. Baina egun, planteamendu horren kritika ezinbestekoa ikusten badut ere, ziurra dena da bere momentuan, plazaratu zenean, ekarpen interesgarriak eskaini zizkiola euskal soziolinguistikari, eta, orokorrean, euskal gizarteari.

Teoria honen oihartzuna zabaltzen hasi zenerako hainbat etorkinen seme-alabak euskara ikasten ari ziren, jada. Batzuk eskola eremuan, beste batzuk euskaltegietan. Lasarte-Oriaren kasuan 1985-1986 ikasturtean jarri zen martxan B eredu eskola publikoan. Garaiko lekukoek adierazi zuten prozesua oso zaila izan zen eta hainbat gurasoren aldetik jarrera oso agresiboak azaleratu ziren. Herrian euskarak bazuen 1966. urteaz geroztik bere hezkuntza eremua: ikastola. Hortik kanpo euskararen agerpenak errezeloak sortzen zituen batzuen artean. Elementu ideologiko-politikoak azalarazten ziren tartean, garaiko errealtatean oso presente zeudenak, baina protagonismo guztia ez zutenak.

Nik inbidiaz jarraitu nuen prozesua: euskaraz ikasteko aukera (eskola publikoan) miraria iruditu zitzaidan. Gogoan nuen (eta gogoan dut) eskolan landu genuen lehenengo euskara metodoa: *Jalgi Hadi!* Baina hori baino gehiago, euskara irakatsiko zigun lehenengo irakaslea dut gogoan. Neska gazte bat zen, gailego batzuen alaba, euskaldunberria. Garai hartan oso gutxi entzuten zen hitz hori (entzuten bazen). Laster ohikoa bilakatuko zen euskararen munduan. Niri harrigarria iruditzen zitzaidan ikustea berak nola hitz egiten zuen euskara, nola erakusten zuen, nola maitatzen zuen. Bere ereduak guztiz hunkitu ninduen eta erreferente bihurtu zen, zergatik? Ikusi nuelako (10 edo 11 urte nituela) posiblea zela euskara ikastea. Horrek, zure familiarren jatorriarekin, zure genealogiarekin, zerikusirik ez zuela. Eta irudi hori lotzen dut nik ibilbidearen nozioarekin: hortik aurrera euskara bide eta bidai bihurtzen da. Helmuga bat ikusten zen eta haratago iristeko laguntzak sortzen ari ziren (bazegoen euskara non, norekin eta nola ikasi).

Eta esandakoari lotuta, alegia, ibilbidearen nozioari lotuta, beste elementu bat azpimarratu nahiko nuke: sormenarena. Euskararen inguruko aldarrikapena bizirik zegoen (beharrezkoa zen) baina horrekin batera beste dinamika eta logika berri batzuk sortzen eta finkatzen ari ziren. Orain artekoa ahaztu gabe, behingoz begirada orainaldian eta, batez ere, etorkizunean jartzen da. Zerbait berria (eta berritzailea) sortu behar zen euskararen inguruan.

Lasarte-Oriako kasuan erreparatzen badugu argi ikusiko dugu 90. hamarkada bereziki oparoa izan zela:

- 1991n Ttakun K.E. sortu zen
- 1992an Euskararen III. maratokia ospatu zen. Edizio honen antolaketaren ardura Ttakun K.E.k hartu zuen eta geroztik horrela mantendu da.
- 1993an *Txintxarri* herri aldizkaria martxan jartzen da, Lasarte-Orian euskara hutsez argitaratuko den lehenengo aldizkaria.
- 1993an *Kalea Maixu!* Egitasmoa abiatzen da. Egitasmo honen helburua herriko haur eta gazteen aisialdia kudeatzen zuten elkarteak euskalduntzea zen.
- 1995ean *Kuku Miku* aisialdiara zuzendutako adarra sortzen da Ttakun K.E.ren barruan. Bere helburua haur eta nerabeen euskalduntze prozesuan eragitea zen.
- 1996an Euskararen IV. maratokia ospatu zen.
- 1997an Ttakun K.E.ren ekimenez *Jalgi Kafe Antzokia* irekitzen da herriaren erdialdean.
- 2000. urtean Euskararen V. maratokia ospatu zen.

- 2000. urtean Tkakun K.E.k Antton Abadia saria jaso zuen.

Zerrenda ikusita erraz irudikatu dezakegu zer nolako dinamika sortu zen herrian, oraingo honetan, euskararen inguruan. Honen oinarrian, zalantzarik gabe, Euskal Herri osoan ematen ari zen euskararen inguruko (herri) mugimendua zegoen. Hori gabe ezin da ulertu sortutakoa eta lortutakoa. Eta mugimendua esaten dudanean maila ezberdinetan ari garela ulertu behar dugu. Hau da, alde batetik gizarte mugimendua dago, baina beste aldetik aipatutako berritze teoriko edo analitikoak legoke. Momentu historiko batean biak bat egiten dute eta horrek bultzada oso garrantzitsua suposatu zuen euskararentzat.

Lasarte-Oria euskararen egitura zabaltzen eta sendotzen joan zen, herria bera egituratzen zen bitartean. 1986an Lasarte-Oria herri bihurtu zen ofizialki. Geroztik aldaketa nabarmenak ikusi dira bertan. Azpiegituz eta herri ekimenez hornituz joan da Lasarte-Oria eta hainbat arazo sozial larri (batez ere gutxieneko zerbitzuei dagokionez) konpontzen joan dira. Urteekin biztanleriaren bizi kalitatea hobetzen joan da eta (sozialki) urte zailak egon badira ere, egoerak egonkortzera jo duela esan dezakegu. Krisi ekonomikoek eta langabeziak presentzia handia izan dute herrian hainbat momentutan eta horrek oso nabarmen utzi du Lasarte-Oriaren izaera: herri langilea izan da.

Esanda dago: lanak erakarri zuen populazio gehiena 50-70 hamarkadetan eta lanak markatu izan ditu herriko erritmoak, bere dinamikak, bere gora-beherak. Horregatik esango nuke hizkuntza hainbat momentutan tentsiorako elementu izan bada ere, egunerokotasunean beste eragile batzuk izan duten pisua edo protagonismoa tentsio hori neutralizatzeko baliagarri izan dela.

Horien artean segurki eragile nagusia lanarena izango litzateke. 1980 urtean Michelinek 3.400 langile zituen. Hortik aurrera, gaur egun arte, kopurua murrizten joan zen. Gaur egun, 2011ean, 650 inguru ditu. Halere, urte askoan zehar herriko dinamika guztia, bere espazioa eta bere denbora Michelinek menpe egongo zen eta horrek gutxienez bi belaunaldi markatu ditu: etorkinena eta bere seme-alabena. Nire belaunaldikoek nahiko argi izan dugu beti gu Michelinek seme-alabak ginela. Eta horrek, besteak beste, esan nahi zuen oinarri komun bat genuela, bestelako ezberdintasunen gainetik. Michelin zela eta, garai hartako haurrak aisialdia konpartitu izan dugu (udako kanpalekuak zirela eta, esate baterako), Gabonetako jostailuak konpartitu ditugu, ordutegiak (gure gurasoek bete beharreko txandak), usaiak (gomarena), eta abar, oso luze bat.

Administratiboki edo ofizialki herria ez zen horrela, Michelinek nolabaiteko irudimen kolektibo edota konpartitua eman zion Lasarte-Oriari. Gutako askok (ez guztiak, noski) bagenuen, azkenik, batzen gintuen zerbait...

Baina lanarekin (eta Michelinekin) batera, beste elementu lagungarri batzuk ere egon ziren, herriari beste konfigurazio bat eman ziotenak: kalearen garrantzia, esate baterako eta, horrekin batera, aisialdirako denborak eta espazioak.

Gure belaunaldikoak kalekumeak izan ginen, seguruenik azkenak izan ginen kalea disfrutatzen. Hau da, gure ondoren etorri zirenak askoz denbora gutxiago pasako zuten kalean, egonean. Jolas tokia zen kalea, baina baita harremanetarako lekua ere, dibertitzeko nahiz negar egiteko tokia. Lasarte-Oria zerbait baldin bazegoen hori kalea zen. Azpiegiturarik gabe hazi gara gu, parkerik gabe, aterperik gabe, kiroldegirik gabe, ludotekarik gabe. Egun toki hauek betetzen zituzten funtzioak orain dela 25-30 urte kaleak betetzen zituen.

Eta kalean dena (edo ia dena) libre zen.

Nerabezaroan kalea esploratzeko da. Gogoan dut garai hartan herrian ezagutzen ez genituen espazioak bilatzen genituela, guraso eta pertsona ezagunen bistatik at ibiltzeko asmoarekin. Eta behar horrek bultzatuta auzo berrietara hurbiltzen ginen. Horrek aukera ematen zigun lagun berriak egiteko, gure ingurukoak ez zirenak, gure eskolakoak ez zirenak. Sareak zabaltzen joango ziren. Prozesu honetan Batxilergoko Institutua martxan jartzeak berebiziko garrantzia izan zuela uste dut, bertan herriko gazte gehienak elkartzeko hasi baitziren. Ordura arte, derrigorrezko hezkuntzan, joera

bestelakoa zen: bakoitza bere zentroan bere zentrokoekin. Aukera eta espazio gutxi ziren haur garaian giro ezberdineko haurrak elkarrekin bizitzeko.

Baina, esan den moduan, Institutuak dinamika horrekin apurtzen lagundu zuen. Testuinguru berri horretan hizkuntza, esate baterako, erakarren elementu indartsu bat bilakatu zen. Ikastolatik zetozenen artean, askok jende berria ezagutu nahi zuten. Herriko beste zentro batzuetatik zetozenak ere asmo berbera zuten. Elkartze edota ezagutze prozesu honetan tentsioak izan ziren, baina askoren oroimenean bestelako sentsazioak geratu dira: belaunaldi berri bat kaleratzen ari zen oso modu irekian: herrian eta herriko jendearekin harremana izan nahi zuen.

Gazteleradunak gazteleraz eta euskaldunak (nagusiki) gazteleraz ere, baina ezagutze eta elkartze prozesu horretatik sare berriak osatzen joan ziren. Eta horretan euskarak modu sinbolikoan bada ere, eremu berri bat irabazi zuen: lagunartekoarena eta ludikotasunarena. Koadrila mistoak eta bikote mistoak gero eta ohikoago bilakatu ziren, musika euskalduna modan jarri zen eta herrian aisialdirako zeuden gune gutxi horietan (gazteentzako taberna gutxi batzuk) maiz entzuten zen. Bertan elkartzen ziren herriko gazte asko, eta ezagutze horretan gazte izateagatik zituzten kezka eta arazoak konpartitzen hasi ziren, kezka horien artean, batzutan, hizkuntza agertzen zen.

Aisialdiarekin lotuta, esan behar da urteekin herriko elkarten kopurua handituz joan zela eta horietako batzuk haur eta gazteen aisialdian eragiteko asmoa zuten. Euren ekimenak eta egitasmoak herri osorako zabaltzen zirenez aukera ematen zuten bertan auzo edo gune ezberdinetako gazteak elkartzeko. Egitasmo hauetako batzuk (gehienak kirolari lotuak) oso fresko mantentzen dira garai hartan gazteak zirenen artean.

Halere, argazki osoa deskribatzeko, esan behar da, herrian bertan gazte izateko eta aisialdia bizitzeko beste moduak ere egon zirela. Modu kontzientean edo inkontzientean batzuk aukeratu zuten euren auzoetan geratzea, betiko lagunekin, betiko giroan; beste askoren kasuan Lasarte-Oriatik atera eta beste toki batzuetara joatea izan zen harreman berriak bilatzeko erabili zuten estrategia.

Bakoitzaren norabidea edozein izanda ere, argi dagoena da mugaren alde batean edo bestean jaiotakoak dinamika berriak martxan jartzen ari zirela. Ni mugaren beste aldean jaio nintzen, Zumaburun hazi nintzen, etorkinen auzoan. Euskara arrotza zen gurean eta gu arrotza ginen euskararentzat, baina nerabezaroan gutako askok euskaltegiak bete genituen. Euskaldunberri bilakatu nahi genuen, hori zen gure ametsa, eta benetako grina genuen hizkuntzarekiko. Zorte izan genuen momentu horretan euskalduntze eta normalizazio prozesuaren inguruan oso mugimendu dinamikoa zegoelako. Mugimendu horrek irentsi gintuen. Batzuk sinistu eta barneratu egin genuen ibilbidearen teoria, berdintasunaren kasuan feminismoak aldarrikatzen duen bezala, normalizazioaren mugimenduan ere hiztuna ez zen euskalduna jaiotzez, (nahi izanez gero) euskalduna bilakatzeko aukera ere, bazegoen.

Ametsa zena (hala nola euskaldundu) egia bilakatu genuen batzuk; beste batzuk saiatu arren ez zuten guztiz lortu eta, azkenik, esan behar da, beste asko ez zirela bereziki saiatu. Emaitzak albo batera utzita –eta horrek ez du esan nahi emaitzak garrantzitsuak izan ez zirenik- nik uste dut nabarmenena zera izan zela: euskararentzat aukera berriak, dinamika berriak, diskurtso, irudi eta eredu berriak hasi zirela sortzen. Euskalduntzea lortu ez zutenen artean asko hasi ziren helburu berriak jartzen: bere atzetik etorriko zirenak euskaldunak izango ziren, izan ere jada, garai hartan euskalduntze prozesuak eskoletan zeraman abiadura geldiezin zirela. Lasarte-Orian 90. hamarkadaren bukaeran (2000. urtean) bakarrik haurren % 4,4a zegoen matrikulatuta A ereduan, ia % 33a B ereduan zegoen eta % 62,6a D ereduan.

Eszenatoki berri bat genuen Lasarte-Orian. Belaunaldi batetik bestera mugak difuminatzen joan ziren nahiz eta askoren irudimenean irmo mantendu. Urte hauetan Brigida komentuaren inguruko eremua behin baino gehiagotan aldatu zen itxuraz, baina muga ezabatzeak beste erabateko birmoldaketa behar zuen. Horretan euskal soziolinguistikak bere ekarpena egin zuen. Esan denez, 90. hamarkadaren hasierarekin aro berri bati ekin zitzaion eta urte horietan zehar kontzeptu berritzaile batzuk mahaigaineratuz joan ziren: berreskurapena, normalizazioa, euskalduntzea... Nozio berriek

errealitate berriak izendatzen eta sortzen lagundu zuten. Eszenatoki honetan, zer zen euskara erdaldunentzat?

Momentu honetan nagusitzen ari zen diskurtsoa (zer kontaktu?) elementu berriak bereganatu zituen. Esate baterako, aipatutako “euskaldunberriak”. Hainbat helduk eta haur askok euskalduntzeari ekin zioten. Bizitza historia berriak sortu ziren eta baita ere espazio berriak, ekimen berriak. Herri mugimenduen indarra gertutik bizi ahal izan zen eta hortik sortutako proiektuek esperientzia berriak bultzatu zituzten: aisialdia euskaraz, tokiko komunikabideak euskaraz, esate baterako. Batzuentzat zenbait ohitura berreskuratzea izango zen, beste askorentzat gune eta praktika berriak deskubritzea.

Zer ikusi? Mugaren mamua albo batera uzi eta euskara gertutik ikusi genuen, hurbil. Bere presentzia gero eta nabariagoa zen kalean, ekintza ezberdinetan, batzuetan helburu bezala, baina beste batzuetan baliabide bezala. Eta zabaltze progresibo horretan euskara aurpegi berriak hasi zen erakusten: gai politiko hutsa izatetik, beste gauza batzuk ere izatera pasa zen eta aniztasun horrek aukera eman zuen bakoitzak bere tokia aurkitzeko. Euskararen maratoiak adibide ezin hobea eskaintzen digu: jai zabal bezala irudikatu zen eta horrela gauzatu da urteetan zehar. Ekintza askotarako tokia eskaintzen du eta jende askorekin egina da. Aniztasunaren bila doa euskara jai honetan eta horrek arrakasta ziurtatzen du Lasarte-Oria bezalako herri batean. Era berean argi dago Euskararen Maratoiak asko zor diela sare sozialei. Hori bigarren lorpen bat litzateke: behingoz euskara sare bat bezala irudikatzen zen, herri osoa harrapatzen zuena.

Zer bizi? Euskara bizitzeko aukerak gero eta ugariagoak ziren. Urte askotan euskara emozio polarizatuen sorreran kokatu zen: amodioa edo gorrotoa; beti tentsio eta krispazioaren bueltan; beti defendatu behar, edota baztertu behar. Etorकिन seme-alabek, gure genealogiak apurtu eta aukera izan genuen euskaraz jolasteko, kantatzeko eta dantzatzeko, euskaraz maitemintzeko, euskaraz normaltasunez irakurtzeko, ipuinak euskaraz entzuteko, eta abar luze bat. Euskaraz emozionatzeko aukera izan genuen, mundu berri batera iritsi ginen eta izugarri aberastu ginen. Batzuk aukera hori izan genuen. Denok ez (batzuen kasuan aukera sortu ez zelako; beste batzuen kasuan aukera horri heldu nahi izan ez ziotelako), baina garrantzitsuena zera da: aukera bera (eta muga guztiekin) egon zela.

3. 2000. hamarkada: euskara, oraindik, bere etorkizunaren bila...

Azken hamarkadan beste jauzi kualitatibo bat ezagutuko zuen nire hizkuntz biografiak. Jasotzaile izatetik emaile izatera pasa nintzen. Geroztik, hainbatetan euskararen gaineko diskurtsoak sortzea egokitu zait, kontzeptuak asmatu behar izan ditut, nozio berriak plazaratu edo “zaharrak” berrikusi. Kezka pizten dit beti eginkizun honek, erantzukizun profesional edo akademikoaz gain, soziala ere badela uste dut. Hau da, testu honetan zehar argudiatu dudan moduan, kontziente izan behar dugu errealitatea aztertzen dugunean, bere gainean hausnartzen dugunean eta errealitate hori definitzen dugunean errealitatea horretan bertan eragiten ari garela. Bambi B. Chieffelin, Kathryn A. Woolard, eta Paul Kroskrity-ek (1998) horrelako fenomenoak aztertu izan dituzte “language ideology” deituriko korrontearen barruan. Horrela, egile horiek edozein hizkuntz gertakarik gizarte egiturekin dituen loturak aztergai bilakatzen dituzte, hizkuntzari –bere izaera, egitura edo erabilerari- atxikitako diskurtsoak edota irudimena oinarri hartuta. Ikuspegi honetatik, egiten denaz gain, egiten edo egiten ez denaren inguruan sortutako interpretazioak edo balorazioak ezinbestekoak dira, azken hauek errealitatean eragiten duten faktore garrantzitsu bezala hartuak baitira.

Gure artean askotan entzun izan dugu asko eztabaidatzen dela euskarari buruz eta gutxi euskaraz. Nire ustez are gutxiago eztabaidatzen da eztabaida horiek sortzen duten errealitateari buruz. Etorkizunari begira hor erronka garrantzitsu bat dugula uste dut. Gazteen inguruan egindako azterketek argi uzten dute egin behar horren urgentzia. Gero eta ikerketa gehiago ari dira egiten gazteen inguruan baina, aldiz, inpresioa dut gero eta gutxiago dakigula euren hizkuntz unibertsoari buruz. Urteekin datu bat nabarmentzen da: gure nerabe eta gazteek primeran barneratu dituzte helduok transmititutako mezuak eta diskurtsoak (gure garaiko mezuak eta diskurtsoak). Badakite zer

esan behar duten euskararen inguruan galdetzen zaienean. Benetan zer egiten duten, zer pentsatzen duten edo zer sentitzen duten beste kontu bat da. Horren inguruan testigantza gutxi dago.

Duela gutxi 19 urteko mutil euskaldun bat elkarrizketatu nuen. Elgoibarkoa, euskaltzalea. Bere herriko gazteen errealitatea deskribatzeko eskatu nion. Bere koadrilari buruz mintzatu zen, euren lokalari buruz, euren aisialdiari buruz, entzuten duten musikari buruz, eta abar. Momentu batean gazteen euskararen erabilerari buruz hitz egiten ari zela ordura arte inoiz entzuna ez nuen zerbait aipatu zidan: “*nire lagunentzako euskara frikia da*”. Guztiz harrিতa utzi ninduen. Lehenengo aldiz, ohartu nintzen gazte horren ahotik beste belaunaldi bat hitz egiten ari zela, eta bere klabeak, jada, nireak ez zirela ohartu nintzen.

Ez mugak ez ibilbideak... ohiko kontzeptuak ez dira egun baliagarriak belaunaldi berriengana hurbiltzeko. Inpresioa dut azken 10 urteotan gertatutako aldaketak, neurri batean, ihes egin digutela. Gure olatuak itsasertza jo du eta euskal soziolinguistikak olatu berria behar du gure gazteen errealitatea (eta orokorrean egungo errealitatea) irudikatzen, aztertzen eta ulertzen.

40 urteotan, nire bizitzan, teoria, herri mugimendua eta esku-hartze instituzionala (hizkuntz politikak) ezagutu ditut. Denen parte kontsideratzen naiz, baina argi daukat ziklo bat itxi dela. Garai bateko produktua izan nintzeke ni. Edonola, egun testuingurua guztiz aldatu da, baita hizkuntzari dagokionez ere.

Lasarte-Oria begiratzea baino ez dago. Familia erdaldun bateko kidea izanik, esango nuke herria euskaldundu dela. Prozesu honetan protagonista ezberdinak izan dira: herri mugimendua, eskola, politika instituzionala eta, nola ez, herria bera, bere populazioa. Ikerketa polita litzateke hura egiaztatzea baina, nire ustez, egun herrian kide euskaldun bat ez duen oso familia erdaldun gutxi geratuko dira (baten bat geratzen bada). Lan asko dago errealitate berri horren atzean, baina, nik esango nuke aldaketa hori nahiko modu “naturalean” eman dela, bizitzarekin batera (ez dut esaten tentsiorik gabe gertatu denik; argi dago tentsioa bizitzaren zati garrantzitsua dela). Batzuentzako hori oso lorpen xumea izan daiteke (azken finean horietako askok eta askok euskara ez dute erabiltzen eta³), baina, niretzako aurrera pausu inportantea da Lasarte-Oriari begira. Genealogiak hankaz gora jarri dira, hizkuntz ohiturak, neurri batean, ere bai. Halere, errealitate horien gaineko susmoak baino ez dira. Ezagutza falta zaigu. Muga eta ibilbideen *alaba* naiz ni, baina ondoren etorri direnak? Ziur aski, beraiek ere diskurtso eta irudi horiek jaso dituzte –gehienetan diskurtso berriak ez dituzte guztiz ezabatzen zaharrak; kontrakoa kasu gehienetan gehitzen joaten dira- baina beste errealitate baten esperientzia zuzena ere bizi izan dute: euskararen normalizazioarena (berreskuratzearena,...). Zer ondorio sortu ditu diskurtso eta praktika horrek? Noraino iritsi da diskurtso hori erdaldunengana? Iritsi denean, zer jarrerak sortarazi ditu? Zein ondorio sozial ekarri ditu?

Ez dut nire burua gai ikusten galdera hauek erantzuteko. Gehienez hainbat kezka/erronka mahai gainean jartzen ausartuko naiz.

3.1. Aniztasuna

Lehenengo kezka/erronka aniztasunarekin lotua dago. Lasarte-Oriako kasua erabili dezakegu berriz adibide bezala. Aipatu den moduan, azken 10 urte hauetan familia asko eta asko, haur eta gazteen bitartez “euskaldundu” dira. Baina familia horien errealitatea oso anitza da. Ez ditut sailkatu nahi betiko moduan: euskaldunak, mistoak, erdaldunak. Gertutik begiratuta (ikastolako patioan nire haurrak atera zain nagoenean argi ikusten dudana errealitatea da), eta edonondik begiratuta oso familia ezberdinak dira, euren hizkuntz genealogiak eta euren hizkuntz ibilbideak oso ezberdinak dira. Are gehiago, egun etorkin berriak direla eta, orain arte buruan ez genituen hainbat aldagai elkarbizitzen ari dira hizkuntzarekin: erlijioa edo sinismenak esate baterako. Zer dakigu aniztasun horren inguruan? Baliagarri izaten jarraitzen dute orain arte erabili izan ditugun sailkapenak? Jasotzen al dute sailkapen

³.- Pentsa dezakegu, agian, diskurtso mota hau muga berri bat ezartzen ari dela: bereizten duena jada ez da ezagutza, erabilera baizik.

horiek egun aurrean dugun hizkuntz biografien aniztasuna? Nola kudeatuko da aniztasun hori? Zein isla izango du euskaren garapenean?

Egun gero eta gehiago erabiltzen ari gara “arnasgunearen” kontzeptua (Zalbide, 2009). Lasarte-Oriatik begiratuta kezka pizten dit ideia horrek. Gure lehentasuna bada “arnasgune” horiek babestea edo sendotzea, zer egingo dugu gainontzeko errealitateekin? Nik uste dut hau ondo pentsatu behar dela, hausnartu eta eztabaidatu. Izan ere errealitate berezi horietan jartzen baldin badugu arreta (eta igual jarri behar da) kontuan hartu behar dugu, egun esku artean dugun (hizkuntz) aniztasuna alboratzen ari garela, Lasarte-Oria bezalako kasuei bizkarra emanez. Eta XXI. garren mendean kokatuta, ez dakit aurrera egiteko zein errealitatek edo zein ereduk emango dizkigun pista gehiago.

Intuzio hutsa da, baina inpresioa dut “arnasguneen” eredia epe motzerako estrategia bat dela, agian gaur egun komenigarria, baina etorkizunari begira aniztasuna da erronka, are gehiago, jada gainean dugun erronka da.

3.2. Identitatea

Bigarren kezka/erronkak identitatearekin du lotura zuzena. Modu teorikoan eta aplikatua identitatearen gaiari heldu behar diogulakoan nago. Gure diskurtso modernoak hizkuntza eta identitateak irmo lotzen ditu. Bi nozioak banaezinak dira gure artean. Ezin dugu pentsatu gure identitatea hizkuntzarik gabe eta hizkuntza –uste dugu- ez da bizirik iraungo identitatearen sostengurik gabe. Nik uste dut egun errealitatean eskema hori, gaudituta dagoela, besteak beste hizkuntza erdigunean ez dagoelako; aldiz hiztuna da zentroa bereganatu duena. Hizkuntzak, euskarak, bere bidea egin du: gorpuztu da, berritu da, arautu da (eta ari da), baina hiztuna? Hitztunak aurre egin dio bere errealitateari ahal izan duen moduan, bere egunerokotasunetik, bere kontraesanekin, bere ilusioekin, bere estrategiekin. Baina ezin dugu ahaztu hiztuna ez dela hizkuntza, hiztuna hizkuntza baino gehiago dela, hitzunak bizitzaren osotasuna biltzen du bere baitan, eta hitzunaz gain (edo hiztuna izatearekin batera) emakumea edo gizona dela, gaztea edo heldua, langilea, kirolaria, eta abar luze bat.

Hizkuntza eta hitzunaren arteko harremana bat izango da, baina hor ez da identitatea agortzen, are gehiago, askotan identitatea abiatu baino ez da egiten hortik. Honekin batera, kontuan hartu behar dugu identitatea osatzen duten pusketa guztiak elkarriketan daudela, elkar eragiten dutela. Horregatik gazteak, esate baterako, ezin ditugu aztertu hitzun hutsak izatetik, gazte izatetik ere ulertu behar ditugu. Hori egin ezean gure hausnarketek huts egingo dute.

Planteamendu bera aplikatu dezakegu herri mailan jartzen badugu arreta. Beti entzun izan dugu Lasarte-Oria ez dela herri euskalduna. Horrela da, noski, baina horrek ez du esan nahi herri hiztuna ez denik, euskara berea egiten ez duenik. Nola azaldu dezakegu bestela Euskararen Maratoiak duen arrakasta? Herriak badu bere hizkuntz identitatea, eta nabarmena da (lan asko eginda, berriz diot) euskararen inguruan aurrera pausuak eman direla.

3.3. Genealogiak eta aldaketak

Hirugarren kezka/aldaketekin du lotura. Euskararen ibilbidean aldaketak beti kezka gai bihurtu dira. Gehienetan aldaketek bere kontra egin dutelako. Baina, azkenen 10-20 urteotan, euskararen alde izandako aldaketak ere gertatu dira. Erdaldunen kasuan hau nabarmena da. Asko euskaldundu dira, eta beste askok, aipatu den moduan, lagundu dute (modu pasiboan bada ere) bere ingurukoak, bere seme-alabak edo bilobak euskalduntzen. Aldaketa horiek hizkuntzarentzat suposatu duena ez dugu aztertu eta aztertu denean askotan zentzu negatiboan planteatu da, adibidez, euskararen kalitatean sortutako kalteen ikuspuntutik.

Euskarak jakin beharko luke genealogia horiek jasotzen eta txertatzen bere ibilbidean, bere “tradizioan”. Aldaketa horiek aztertu beharko genituzke etorkizunean eman daitezkeen aldaketak hobeto ulertzeko, edota, bide batez aldaketa horiek gerta daitezzen laguntzeko. Genealogia horiek

euskararen inguruan kontatzen diren istorioen artean ere egon behar dira, bere transmisioaren parte direlako.

Gaudenak gaude, aurretik beste batzuk egon direlako, baina inpresioa dut, genealogi horiek ez ditugula beti behar bezala aintzat hartzen. Transmisio zuzen eta lineal batetik kanpo geratzen denak espazio gutxi du euskararen irudimenean.

3.4. Hizkuntza eta gizarte egitura

Laugarren kezka gizarte egiturarekin lotzen dut.

Feminismoan badugu kontzeptu bat oso baliagarria dena generoari loturiko arazoak aztertzeko: genero sistema. Kontzeptu hau ezinbestekoa zaigu egungo dinamikak ulertzeko, besteak beste, generoa gizarte egiturarekin lotzen duelako. Generoa sexuan oinarritutako irakurketa edota interpretazio soziala litzateke, eta horren arabera emakumezkoen eta gizonezkoen hainbat funtzio, betebeharrak, balioak, ezaugarriak eta abar atxikitzen eta ezartzen zaizkie. Genero sistemak argi uzten digu sexuan oinarritutako irakurketa sozial hori (generoa) ez dela inolaz ere inozentea, aldiz nabarmena da botere sistema batean guztiz txertatua dagoela. Sistema horren arabera gizonezkoen egiten dutena, gizonezkoen atxikitzen zaiena, beti prestigio gehiago izango du. Emakumeek egiten dutena, emakumeen atxikitzen zaiena ordea, bigarren maila batean egongo da.

Eskema hau hizkuntzaren kasuan aplikagarria dela uste dut. Nik uste dut argi eduki behar dugula diglosiaz hitz egiten dugunean, adibidez, hizkuntzak aldeztu aurretik ezarritako eskema baten arabera kokatzen ari garela, esate baterako "high" eta "low" (maskulinitatea eta feminitatearekin gertatzen den antzera). Hori kontuan hartuz, nire ustez eztabaida ez da euskararen egoera diglosikoa baizik, zein nolako eskema erabiltzen dugun abiapuntuan. Nire ustez hizkuntz identifikazio sistema batean ari gara murgiltzen uneoro, non identifikazioak behartzen gaituen (modu berean, genero sistemak gizonak behartuta daude "gizonezkoen papera" hartzera eta emakumeak "emakumeenak") toki batean edo bestean kokatzen eta dinamika horretan sartuta, ez gara gai, sistema osoa bera kritikatzeko eta apurtzeko. Maila teorikoan behintzat ez dugu lortu, beste gauza bat da maila praktikokoan aurrera pausorik eman dugun edo ez. Hor nik mugimendu batzuk ikusten ditut, erresistentzia interesgarri batzuk. Erresistentziak nondik? Praktikatik, gertuko/tokiko testuingurutik eta sormenetik. Eta erresistentzia horiek norabide ezberdinetan eman daitezke, hau da, euskararen "onurarako" baina, baita ere euskararen "kalterako". Euskalduna naiz eta aurreikuspen batzuk daude nigan, baina nire praktikan eta nire testuinguruan, zein da nire jokabidea, nire diskurtsoa...? Egun hizkuntzaren zabalpenerako baliabide berriak erabiltzen ari direnean, zein ezagupen mota bultzatzen ari da? Zertan gauzatzen da ezagupen hori?

Feminista izanda ikuspegi positiboagoa dut hizkuntzaren gaian generoaren gaian baino. Inpresioa dut hiztunek, hainbat kasutan, hizkuntz identifikaziorako sistemari enbidoa egin diotela eta ezarritako eskala, nahiz hierarkien gainetik jarri direla, hiztunarentzako testuingurua, praktika eta sormena errealitatea direlako, egunero kudeatu beharreko errealitatea delako. Eta hori, inon baino hobeto, Lasarte-Oria bezalako herrietan sumatu da.

Bukatze aldera eta egindako planteamenduari so eginez, aurreikuspen bat egitera ausartuko naiz. Euskara identitatea oinarritzeko baino identitatea osatzeko erabiliko da. Hizkuntza kare-morteroa bilakatuko da. Identitateak gero eta konplexuak, malguagoak, likidoagoak, zatituagoak izango direnez espazioak hurbiltzeko, genealogiak lotzeko eta aniztasuna kudeatzeko kare-argamasa beharko dugu. Hortik aurrera, nire ustez airean geratuko zaigun galdera hauxe da: zein osagaiekin gorpuztu kare-mortero hori?

Bibliografia

AMURIZA, Xabier (1982): *Laurehun herri. Mila bertsoberri*. Donostia: Elkar-AEK

ESCUDERO, Manu (1978): *Dos Comunidades*. Donostia: Haranburu.

HERNANDEZ GARCIA, Jone M. (2007): *Euskara, Comunidad E Identidad: Elementos de Transmision, Elementos de Transgresion*. Madrid: Ministerio de Cultura

HERNANDEZ GARCIA, Jone M. (2010): *Baina gu ere gazteak izan ginen!Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur*

<http://www.euskaltzaindia.net/dok/plazaberri/2011/hernandez.pdf>

SÁNCHEZ CARRIÓN, José María (1987): *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Estella: Autoedición.

SCHIEFFELIN, B; WOOLARD, K.; KROSKRITY, P. (1998): *Language Ideologies: Practice and Theory*. New York: Oxford University Press.

ZALBIDE, Mikel (2009): "Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE saioetan": In:<http://www.udalTOP.com/historikoa/2009/fitxategiak/dokumentuak/dokumentazioa/aurrez-aurreko-jardunaren-lekua-hinbe-saioetan-2.pdf>

ZARRAGA, Arkaiz et al. (2010): *Soziolinguistika Eskuliburua*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

